

ELKARBIZITZA KODEA

OÑATIKO
EMAKUMION ETXIA



OÑATIKO
EMAKUMION
ETXIA



Oñatiko Emakumeen etxea **ekipamendu publiko bat da**. Herritarren zerbitzura dagoen eraikina eta egitasmoa, herriko eta herritarren bizitza aberastu, osasuna eta ongizatea sustatu, hausnarketak bideratu eta finean, herritarren bizi baldintzak eta bizimoduak hobetzera bideratuta sortua, beti ere, helburu edo egiteko jakin baten inguruan ardaztuta: gizarte berdinzale eta justuago bat eraikitzeko erronkan eragitea.

~~Herritarren zerbitzura dagoen ekipamendu irekia da, eta herritarren beharrei erantzutea da bere xedea. Hala, Oñatiko Emakumeen Etxearen irekiera eta publikotasun hori posible izan dadin, ez da maila politikoan edo erlijiosoan kokapenik ezartzen eta halako jarduerak etxearen dinamikatik at uzten dira. .~~

Herritar bakoitza bere beharretatik eta bere ikuskeratik gerturatzen da Oñatiko Emakumeen Etxera, eta bakoitzaren ikuspegia edozein dela ere, emakumeen etxeak **lau printzipio nagusitan oinarrituta** erantzungo die planteatutako beharrei:



Feminismoa



Intersekzionalitatea



Garapen komunitarioa



Ahalduntzea

Lau printzipio hauek, etxeko jardunari lotuta ez ezik, etxearen kudeaketari eta erabaki eremuari lotuta ere ezartzen dira. Hala, etxeko jardunak ez ezik, kudeaketak eta erabaki eremuak ere izan beharko dira feministotik, intersekzionalitatetik, ikuspen komunitariotik eta ahalduntzetik eraikitakoak.

ZER BERMATU NAHI DU EMAKUMION ETXeko JARDUERA KODEAK?

- Emakumeek¹ gidatutako espazio bat da Oñatiko Emakumeen Etxea. Herriko emakumeen jakintzen partekatzeetik abiatuta, eta askotariko emakumeen parte hartzea ahalbidetuta, begirada kritiko feministak eraikitzeke espazio izan nahi du emakumeen etxeak. Emakumeak dira euren errealitatearen transformazioa gidatzen duten prozesuetako sujetu, eta bizipen eta zapalkuntza ezberdinak bizi dituzten emakumeak aitortzen ditu bakoitzaren eraldaketa prozesuaren sujetu gidari gisa.
- ERLAZIONALA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Emakumeen etxeak harremanak sortzea eta indartzea bilatzen du; bai emakumeen artekoak, bai eta elkarte edo taldeen artekoak ere. Ideia honek, elkarrekiko dependentzia aitortzen du eta harreman horiek gizarte eraldaketarako giltza edo oinarri gisa kokatzen ditu.
- HORIZONTALA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Botere harremanetan jarriko duela arreta, eta harreman horizontalak sortzea bilatuko duela; erabiltzaileen artean, taldeen artean, erabaki guneetan, estamentu ezberdinen artean... maila guztietan. Harreman horizontalak bilatzeko ariketan, boterea ez ezik, ardurak eta erantzukizunak birbanatzeaz ere hitz egiten da, eta planteamendu horien inpaktu eta inplikazioez etengabeko hausnarketa bilatuko du. Gobernantza eredu SOZIOKRATIKOaren bidez, gobernantza zirkuluak eratzen dira, eta hauek bakoitzak erabakimena du bere lan esparruan. Erabaki horiekiko errespetua eta aitortza ezinbestekoa izango da.
- ZAINZAILA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: Etxearen erabiltzaile diren sujetu guztien arteko zaintza bilatuko du; horretarako konfiantzazko espazioak eraikitzea bilatuko du, eta konfidentzialtasuna eta errespetua izango dira etxeko harreman eta dinamiken oinarri.
- EUSKALDUNA dela diogunean, honakoa esan nahi dugu: euskara lehen mailako hizkuntza izango da. Euskal hizkuntza, kultura eta lurraldea errekonozitzen ditu, eta termino horien bueltako eztabaidei ez die bizkar ematen. Eztabaida edo kontraesankorrak izan daitezkeen ideien dantza horretan, aurretik adierazitako balioak jartzen ditu eztabaidaren resoluzio horretan emakumeen etxeak.
- Gobernantza eredu kolektibo, horizontal, justu eta eraldatzaileen aldeko apustua egin nahi du emakumeen etxeak; ohiko eskema hierarkikoetatik irten, eta parte hartze modu anitzei bide eman nahi die.
- ERRESPETUZKO harremanak sustatuko dituen espazioa; EPAIRIK GABEA, DESBERDINTASUNETATIK eraikitzen jakingo duena. Espazio mixto eta ez mixtoen arteko elkarreraginean, kolektibo edo bizipen desberdinetatik datozen emakumeen arteko indartzea bilatuko da, eta era berean, desberdinen arteko harremanen eraikuntzan ere jarriko da arreta. Hala, desberdintasunari ere leku egin nahi dio emakumeen etxeak; desberdinen arteko topaketak bilatu, eta elkar errekonozitzeko eta hausnarketak partekatzeko bideak eskaini nahi ditu.
- ESKUZABALA izan nahi du espazioak eta erabiltzaileen arteko harremanetan ere esku zabaltasuna sustatu.

1 Ezaugarri biologikoetatik haratago doan kontzeptu gisa definitzen dugu “emakume” sujetua, eta sistema patriarkalak zapaltzen dituen gorputz edo identitate guztiak barne hartzen ditu.

- Espazio ASKEAK aipatzen dira, eta oraingoan maila ideologikoan eta diskurtsiboan egiten zaio erreferentzia: Dogmarik gabeko espazioa
- IRISGARRITASUNA planorik zabalenean ulertzen dugu: irisgarritasun fisikoaz gain, irisgarritasun kognitiboa, sentsoriala edo sozio-emozionala ere atenditu nahi du emakumeen etxeak. Oinarri teorikoen txostenak ere jasotzen du ideia hau.
- Etxeak badu IDEOLOGIA bat. Etxea POLKITIKOA da. Baina alderdi politikoekiko desbinkulaturata eratzen du ideologia edo izaera politiko hori. Etxeak ez die alderdi politikoen interesei erantzuten.
- MUGA IDEOLOGIKO ETA ERLIJIOSOAK aipatzen direnean, ez du esan nahi etxea erlijio edo ideologiaren bizkar eraikiko denik. Erlijioak eta ideologiak kontuan hartuko ditu, baina ez du horietako baten baitan ardaztuko bere izaera, eta ez du horien sustapenean parte hartuko. ~~(Hau da; etxean ez da errezorako espaziorik egongo, baina kontuan hartuko ditu ramadanaren aldia edo gabonak bere programazioan)~~
- ESPAZIO SEGURU, konfidentzial eta konfiantzazko bat bilakatzea horren beharra duten emakumeentzat; etxe sentsazioa emango duen espazio bat. Ahizpatasunaren balioa zabaldu eta transmititzea ezartzen da helburu gisa eta horretarako, zaindutako prozesu, espazio eta harremanak eraiki nahi dira. Ahizpatasuna helburu bezela eta bide bezela.

ZEIN NEURRI EZARTZEN DIRA HORRETARAKO?

Isiltasuna eta zarataren arteko oreka

- Etxea hiru solairutan banatuta dago. Beheko solairua eremurik zaratatsuen izango da, eta lehenengo eta bigarren solairuak lanerako espazio izango direnez, isiltasuna mantendu beharko da bertan burutzen diren ekintzetan edo egonaldietan. Espazio bakoitzaren zarata mugak kontuan hartuko ditu ondoko espazioen beharrak, eta horren araberrako erregulazio bat egon beharko da, espazio bakoitzaren izaeraren barruan. Antolatutako ekimenen batean zarataren gaineko dinamika hau hausten dela aurreikusten bada, etxeko langileei komunikatuko die antolatzaileak, hauek beste ekintzekiko bateragarritasuna baloratu dezaten. Horren araberrako neurriak hartuko dira (behean edo lehenengo pisuan jarduera zaratatsuegiak antolatu badira, aholkularitza edo bestelako saio intimorik ordu horretan ez dela egongo ziurtatuko da, adibidez).
- Beheko espazioa ere bilaka daiteke “eremu isila” bertan antolatutako jarduerak hala eskatzen duenean. Etxeko erabiltzaileei jakinaraziko zaie ikurren bidez, egun horretan eta une horretan eremuaren erabilera isila egiteko beharra.
- Ikastaro edo bestelako ekintzaren bat antolatzen bada eta zaintza zerbitzua eskaintzen bada hari lotuta, zarataren gaineko irizpidea ere kontuan izango da. Beheko solairua egoikitzea izango da lehenengo aukera zaintza zerbitzuetan (harrera espazioa batik bat). Ekimena beheko solairuan bada eta gainerako espazioetan ekintzarik ez bada, goiko aretoak ere erabili ahal izango dira.

Espazio mixto eta ez-mixtoen arteko elkarbizitza:

- Gizonak emakumion etxeko erabiltzaile gisa: Espazioa erabili ahal izango dute gizonentzat irekitako jardueretan, zerbitzuetan, edo eurek antolatutako jardueretan, bat datozenean jarduera horiek etxearen helburuekin. Hedapen euskarrietan berariaz adieraziko da jarduerak mixtoak diren ala ez mixtoak diren, eta etxean bertan, jarduera mixtoak antolatzen direnean, sinbolo bidez adieraziko da.
- Emakumion etxian gizonen presentzia handiagoa aurreikusten diren egunak ezarriko dira, eta presentzia baxuagoa izango dutenak (Adibidez, bi egun markatzea jarduera mixtotarako, zerbitzu mixtotarako, ea). Hala, emakumeei espazioaren erabilera intimoagoa eskaini ahal izango zaie, eta lanketa konketuak espazio zabalagoetan egiteko aukera irabazi.
- Gizon eta emakumeen arteko elkarbizitza ez ezik, bestelako kolektiboekiko elkarbizitza arautzeko neurriak ezarriko dira.

Jarduerak kolektibo konketu batentzat badira, eta ex mixtoa baldin bada, hala adieraziko da hedapen euskarrietan eta etxean bertan, ekimenaren sarreran. Sinboloa izango du LGT-BIQ kolektiboak antolatutako ekimenek, Kolektibo arrazializatu eta migratuak, helduentzat soilik diren ekintzak, adin muga dutenak, ea.

- Etxeko ekimenak antolatzeko jarraipen-euskarrian, sinbolo batekin markatuko dira halako jarduerak, gainerako erabiltzaileek kontuan izan dezaten, eta ekimenen arteko talkak saiheste aldera.

Irisgarritasuna

Etxea espazio irisgarria izango da. Hori bermatzeko mekanismoak ezarriko dira: jarduera bakoitzaren arduradunari dagokio beharrezko ikusten dituen irisgarritasun neurriak ezartzea. Irisgarritasuna era zabalean ulertzen denez, irisgarritasun fisikoaz gain, irisgarritasun kognitiboa, sentso-riala edo sozio-emozionala ere atenditzeko neurriak hartu ahal izango dira. Emakumeen etxeko langileak (ekintzaren antolatzailer zuzenak ez direnean) lagundu ahal izango dute neurri hauen garapenean (baliabideak eskainiz, hizkuntzaren erabilerarako irizpideak ezarriz, komunikazio mekanismoak ezarriz, ea).

Jarduerari lotuta ez ezik, irisgarritasuna parte hartze espazioei ere aplikatzen zaie; dagozkion mekanismoak ezarriko dira erabaki guneak irekiak eta irisgarriak izan daitezen.

Etixerako irisgarritasuna bermatzea ere izango da etxearen ardura, eta horretarako tresnak landuko dira (esaterako, komunikazio euskarri ezberdinak sortzea, espazioa eta bertan ematen diren zerbitzuen gainerako informazioa eskainiz, hizkuntza ezberdinetan).

Hizkuntza

- Euskara izango da emakumeen etxearen hizkuntza paisaia. Euskarak lehentasuna izango du idatzizko testu guztietan, aurkezpenetarako erabiltzen diren euskarrietan, aurkezpen ekitaldietan, ea.
- Gazteleraz antolatzen diren ekitaldietan ere neurriak hartuko dira hau horrela izan dadin; euskarak hedapenerako euskarrietan lehentasunezko lekua izango du, eta ekitaldiaren aurkezpen eta agurrean euskarazko azalpenak txertatuko dira. Euskararen

erabileraren lehentasuna azaldu eta politizatzeko erabil daitezke ahozko aurkezpenak, eta bestelako hizkuntza gutxituak ere balioan jartzeko.

- Ekimenaren antolatzailea etxetik kanpoko eragile bat denean, etxearen hizkuntza irizpideak jakinaraziko zaizkio.
 - Era berean, etxeak bermatu beharko du, Euskara lehenengo mailako hizkuntza izanik, euskal hiztunak ez direnak ez daitezen izan bigarren mailako parte hartzaile. Bermatuko da etxearen hizkuntza herritar guztiek ulertzeko modukoa izango dela, eta horretarako beste hizkuntza batzuk, piktogramak, ikurrak, braille-a, irakurketa errazterako irizpideak... erabiliko dira.
 - Hizkuntza inklusiboaren erabilera. Hizkuntzaren bidez adierazten den horretan askotariko errealitate edo bizipenak ikusarazten lagundu beharko du emakumeen etxeak, generoari, kulturari, jatorriari, familia ereduari edo bestelakoei dagokienean.
- Aldibereko itzulpen zerbitzua erabiltzeko aukera egongo da etxiak edo udalak antolatutako formatu irekiko ekimenetan, aurrez zerbitzuaren eskaera egiten denean. Antolatzaileari dagokio zerbitzuaren berri ematea eta zerbitzua eskatzeko epeak ezartzea.
- Bileretan, tailerretan edo bestelako espazioetan, taldearen edo antolatzaileen esku gertatu da hizkuntzaren kudeaketari dagozkion irizpideak adostea eta horretarako baliabideak eskaintzea. Neurtu beharko da zein espaziotan ematen diren baldintzak euskara hizkuntza vehikularra izanda erdal hiztunek ere parte har dezaten, eta zeintzutan ez. Baldintzarik ematen ez den kasuetan, hizkuntza bakarraren aldeko hautua egin beharko da.

Gobernantza zirkuluen kasuan, erdal hiztunen parte hartzeko aukera bermatu beharko da. Xuxurlatzea, hizkuntzak tartekatzea, dokumentazioa elebitan eskaintzea, edo bestelako mekanismoak erabili ahal izango dira.

Bilera txikietan edo tailerretan ez da aldibereko itzulpen zerbitzua eskainiko etxetik.

Etxekideen artean xuxurlari-bolondresen talde bat eratuko balitz, formatu itxiko ekimenetan akonpainamendu hau eskatzeko aukera eskainiko litzateke, eta eta xuxurlari bolondreekin zerbitzua eskaini.

Segurtasuna eta konfidentzialtasuna:

- Etxeko erabiltzaileek bertan bizitakoa konfidentzialtasunez zaintzeko ardura dute. Ahizpatasuna ezartzen da helburu bezela eta bide bezela.
- Mekanismoak ezarriko dira, ikastaro eta eskuhartzeetan ez ezik, etxeak berak ere mezu hau komunikatu dezan, espazioen erabilera informalean ere bermatu dadin konfidentzialtasun eta segurtasun hori.

Denboren eta bizi baldintzen arabera kudeaketa

Etxiak eguerditan itxi egingo ditu ateak, baina aukera egongo da ikastaroak edo bestelako ekintzak eguerdietan burutzeko. Ateak itxita egongo dira, baina barruan jarduerak burutu daitezke. Egoteko espazio gisa ere eskaini dakieke kolektibo batzuei, baina atea itxita, eta eskaerapean (adib. Zaintzako langile talde bat, euren eguneko deskantsuak ordu horietan tokatzen zaiela eta. Edo autoantolaketa taldeak, edo..)

Espazioen lagapena

Espazioak eta baliabideak hirugarrenei lagatzeko aukera egongo da, beti ere proposatutako jarduera bat badator etxearen helburuekin.

- Etxearen erabilera kodea partekatu beharko da lagapenerako baldintza gisa.
- Proposatutako jarduera etxearen helburuekin bat datorren edo ez ebazteko tresna bat sortuko da, eta programatzaileek izango dute horren jarraipenaren ardura
- Etxiak izango du espazioen erabileran lehentasuna. Lehentasun hau mantenduko da ekimena baino hilabete lehenagora arte; ondoren, data itxitzat emango da.
- Hirugarrenaren ardura izango da espazioa prestatzea eta jasotzea

Elkartek

Elkartearen ekintza esparrua bat badator etxearen xede, balio eta ikusmirarekin, elkarte horrek Etxea erabili ahal izango du bere bilerak egiteko edo bere jarduna aurrera eramateko. Emakumeen etxeak ekimen kolektiboak sustatu, indartu eta lagunduko ditu, eta auto-antolatzen has-teko leku bat izan daiteke, baina ez herriko elkarten sedea. Batez ere, behar eta erronka askori erantzun behar diolako etxeak eta espazioa mugatua delako. Hala, proiektuen indartzea eta autonomia hartzea ere bilatuko ditu.

Jarduera ekonomikoak-merkatu logika

Jarduera ekonomikoa edo irabazi asmodun ekintza baimenduko da, Antolatutako jardueraren helburua bat badator etxearen helburuekin. Jardueraren helburua salmenta soila bada, ez. Dena den, jarduera ekonomikoaren kontzeptua definitu beharra dagoela uste da, indefinizioak ekar dezakeelako ematen diren erantzunak oinarri gabeak eta besteekiko injustuak izatea.

Muga honek kontuan hartu behar du “irabazi asmorik gabea” izaera juridikoaren atzean dene-tariko abiapuntuak, aukerak, helburuak eta moduak ezkututzen direla: batzuek lukratzeko ere erabiltzen duten aitzakia da, eta beste batzuentzat, adibidez, ahalmen ekonomikorik ez dutelako, auto-antolatze gaitasunik ez dutelako edo laguntasunik bilatzen ez dutelako, bizirauteko estra-tegia bihurtzen da. Azken hau ikusezina ikusgai bihurtzeko estrategiekin lotzen da.

Argi dago etxea ezin dela izan ekonomikoki aberasteko leku bat, baina argi dago etxean dirua mu-gituko dela. Etxean ematen diren zerbitzuetan, oinarrizko irizpide ekonomiko batzuk adostea ba-loratu daiteke (formatzaileen tarifak, hizlarienak, kontratatutako zerbitzuetan zein irizpide hartuko diren kontuan...). Bestelako harreman ekonomiko edo elkarreragiteak probatzeko espaziotzat ere ikusten da Etxea: denbora bankuak, baliabide edo jakintzen elkartrukaketa, laguntza ekonomiko-rako sareak edo dinamikak...

Kolektiboren batek dirua bildu nahi badu, etxea erabil dezake beti ere bere kolektiboaren balioak eta diru bilketaren helburuak etxearekin bat datozenean eta etxeari trukean zerbait eskaintzen dionean edo etxearen onurarako zerbait ekartzen duenean.

Espazioen erabilera

Materiala zaintzea eta espazioak aurkitu bezala uztea etxeko erabiltzaile guztien ardura da.

Lan-talde ezberdinen materiala uzteko espazioak egongo dira, eta etxeko langileekin adostuko da hauen erabilera.

→ **Sukaldea.**

Sukaldean eskainiko diren jan-edanak, “bote” bidez ordainduko dira. Bakoitzak bere ahalmen ekonomikoaren arabera egingo du kontsumisioaren gaineko ekarpen ekonomikoa.

Jan-edanen pilaketa ekiditeko neurriak hartuko dituzte emakumion etxeko langileek, batez ere hozkailuan gordetako elikagaiei dagokienean.

ERASOEN KUDEAKETA

Etxian aurre egingo zaie eraso Arrazista, LGTBQfobo, matxista, lodifobo, kapazitista, edo bestelako zapalkuntzetan oinarritutakoei. Horien aurrean jarduteko protokoloak ezarriko dira.



Jostunak izango dira protokolo hauen garapena bultzatu eta adostuko dutenak, eta etxean eman daitezkeen erasoen aurrean, erreferentziazko espazioa izango da.

JARRAIPENA

Elkarbizitzarako akordioen jarraipena Jostunen taldeak egingo du. Jostunen ardura izango da elkarbizitza kodean jasotako edukien komunikazioa nola burutuko den adostea, kodeen betetze maila ebaluatzea, eta aldaketak proposatzea. Era berean, jostunen taldearen ardura izango da kodeak ez errespetatzeak izan ditzakeen ondorioak adostea.

DATUEN BABESA

Etxian eskaintzen diren zerbitzu eta jardueren lotuta jasotzen diren datuei pertsonalen kudeaketa Udalaren ardurapekoa izango da, eta DBLO-k ezarritako irizpideen arabera egingo da hauen erabilera. Etxekideek eta etxeko gobernantza espazioetako kideek ez dute datu hauetarako sarbiderik izango.

Jarduera puntual bat antolatzeke elkartzen diren taldeek edo etxekideek datu pertsonalik jasoko balute, datu sentikorrek tratatu gabe eta izena, posta elektronikoa eta telefonoa bakarrik jasoz, tratamendua noizbehinkakotzat eta arrisku txikikotzat har daiteke, eta, beraz, ez litzateke beharrezkoa izango tratamendu jardueren erregistro formal bat eramatea. Kasu honetan pertsonak datuen kudeaketa moduaren inguruan informatu, datuak jarduera puntual horretarako soilik erabiltzea eta behar ez direnean ezabatzea etxekide edo talde horren ardura izango da.

Etxea euren jarduerak burutzeko erabili dezaketen elkarteak edo bestelako eragileen kasuan, euren gain hartuko dute etxean antolatutako ekintzen arira jasotako datuen kudeaketa.